

Nafarkaria


Egunkaria

Ostirala, 1996ko otsailaren 9a

*

Artxiboetako euskal harribitxiak

■ Franko ahaztuta eta zokoratuta egon badira ere, 1882tik 1928ra bitarte Iruñeko Udalak antolatutako literatur lehiaketak arrakasta handia izan zuten. Haien artean urtero proposatzen ziren euskarazko gaiak ere lan sorta interesgarria —eta, batez ere, harrigarria, euren berririk ez baitute askok— sortu zuten. Azpimarratzekoak dira 1926 eta 1928ko deialdiak, azken biak, hain zuzen ere. 1926an Federiko Garralda idazleak Otsagabiako haur jostaketei buruz zaraitzueraz aurkeztu zuen lanarekin jaso zuen lehen saria, gaur arte argitaratu gabea, eta, antza, ezezagun askoa. 1928an, bestalde, *On Kixote*-ren IX. kapituluaren itzulpena proposatu zen lehiaketaren sail batean, eta idazle sorta oparoak erantzun zion deiarri: Orixe, Lizardi, Irigarai... 1928an desagertu ziren zortzi ekitaldi izan zuten sari hauek. Soilik Iruñeko Artxiboak dauka, antza, haien berri. ■



Metropoli forala

FELIPE RIUS



Lamerica filmean agertzen diren albaniarrek noraezean dabilta, igande goiz batean infernua barrera paseoan ibiliko bailiran. Greziako muge-tara edo Italiara eraman ditzaketen itsasuntziatara hurbiltzen dira pauso lasaiaz, inolako presarik gabe, esku hutsik, galtzeko deus ez dutenen patxaraz, beren etxe aurretik etsaiaren gorpua ez dela sekula pasako dakite-n bakea aurpegian isladaturik. Ahal dutenean itsasuntziatara igotzen dira telebistak iragarritako lurralde mires-garrira iritsi nahian, baina ez zaie desio handirik ikusten, patuak agintzen diena egiten ariko bailiran mugitzen dira alde batetik bestera. Azkenean batzuk beren ametsetako Mendebaldera iritsiko dira, eta beste lurralde batzuetatik ailegatutakoekin bilduko dira Alexander-

Lamerica ezinezkoa

plazten, Milanon edo Madrilgo kale zahurretan, eta beren aurpegietan ihesaldia hasi aurretik zuten harridura keinu berbera irakurriko dugu, beren buruari «hau al da dena?» galdetuko baliote bezala. Angelopoulos eta Gianni Amelio bezalako zinegileek modu ederrean azaldu digute Europako ekialdearen hondamendia, hasi baino egin ez duen peregrinazio krudel baten gogortasuna erakutsi digute, eta milurte bukaera hontako hamaika sarraski bezalaxe pantaila batean ikusi dugu garrantzi handirik eman gabe. Azken finean haiek infernutik datoz eta gu paradisuari bizi gara, baina piska bat pentsatzen hasiz gero, gobernu erori zela jakin bezain laster errepideetara telebistan ikusitako irudien bila atera zirenak eta gu ez gara horren ezber-

dinak. Egongelan eserita gauden bitartean gure gogoan noraezean dabil garbi agertzen ez zaigun zerbaiten atzetik, eta bideetako albaniarrek gure desorientazioaren metafora bat baino ez dira. Batzuetan ematen du denok goizalde batean erdi lotan telebistan ikusitako irudi berbera harrapatu nahi dugula eta errepidera ateratzen garenean eroritako mitoak eta suntsitutako utopiak besterik ez dugu aurkitzen. Ordezko mitoak ez dira inon ageri, ordea, eta batzuk itsasuntziatara igotzen diren bitartean besteok amets egiten dugu egongelako besaulkian bolumentik ez duen telebistari begira, nahiz eta jakin badakigun gure *Lamerica* partikularra, uholdeka datozen ekialdeko hiritarrena bezala, gero eta urrutiago dagoela. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruñea: Hamlet eta Flitter taldeek Nafarroako Antzerki Eskolan kontzertua eskainiko dute gaur gaueko 10.00etan. Sarrerak aurretik erosiz gero 1.000 pezeta balio du eta takilan 1.200.

Gares: Funda Mental aretoan Mulero eta Dj Juan taldeek joko dute gaur gaueko 1.00ean. Sarrerak 1.000 pezeta balio du. Leku berean baina bihar La Barberia del Sur taldeak joko du 23.00etan. Sarrerak, aurretik erosita 1.200 pezeta eta takilan 1.500ean.

Burlata: Malafama taldeak Black Rose tabernan joko du astear-tean, hilak 13, 20.30etan.

Iruñea: Desoreka taldeak Terminal tabernan kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, hilak 15, gaueko 9.30etan.

Iruñea: Reverendos dantzalekuan Tom Principato taldeak joko du ostegun honetan 22.00etan. Sarrerak aurretik 1.300 pezeta balio du eta takilan 1.500 pezeta.

Iruñea: Gaiarre antzerkian Euskadiko Orkestrak joko du arratsaldeko 7.45etatik aitzina. Emanaldia datorren asteazkenean izanen da.

ANTZERKIA

Iruñea: Alegria tabernan Terapia de grupo taldeak antzerkia eskainiko du heldu den ostegunean, gaueko 9.30etan.

Iruñea: Gaiarre antzokian *Retablo de la abadia* antzezlan eskainiko da gaur eta bihar arratsaldeko 8.00etan.

ERAKUSKETAK

Lizarra: Gustavo de Maeztu museoan Joan Miro margolari kalaluniarraren lanak daude ikusgai otsailaren 28a bitartean.

Iruñea: Gotorlekuko Mixtos aretoan *Munduko intsektu arraroenak* erakusketa dago ikusgai otsailaren 29 bitartean. Lanegunetan 17.30tik 20.00etara arte dago zabalik eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara.

BERTSO SAIOAK

Arantza: Jokin Sorozabal eta Sebastian Lizaso igandean bertso kantari ibiliko dira. Emanaldia egun osoz eta plazan eta ostuan izanen da.

Sara: Igandean, Amordia aretoan, 16.00etan bertso jaialdia izanen da. Estitxu Arozena, Aitor Mendiluze, Jon Enbeita, Jexux Arzallus, Jean Pierre Mendiburu eta Fermin Mihura bertso kantari ariko dira.

MENDI IBILALDIA

Iruñea: Nafarroako Goi Mendi Eskolak, etziko, Bardeetara mendi ibilaldia antolatu du. Orreagako ardi bidea bizikletaz egiteko aukera ere badago. Parte hartu nahi duenak edo informazio gehiago lortu 10 78 48 telefonora dei dezake.

nafarkronika

Jon Alonso

Euritea

Lehengo egunean Xabier Olarrak (Olarra jartzea bakarrik otu zait hasieran, eta izutu egin naiz horrek ekar litzakeen ondorioak pentsatze hutsarekin) EGUN KARIAKO nazionalen gogorazten zigun, beste hitzekin eta hain bere duen grazia eta ironiarekin, baina, hau auzo bat baino ez dela. Eta txikia, gainera. Estatuko, Europako, munduko bazter auzo txiki.

Kasik konturatu gabe, madarikazio biblikoa bezalako zen lehortea etorri zitzaigun auzora, eta orain, konturatu gabe ere, sekulako euritea etorri zaigu, dirudiela erreka, ibai, urtegi eta gainerakoek, atertzen ez badu —eta idazten ari naizen une honetan ez dirudi horrelakorik gertatuko denik— gainez egingo dutela une batetik bestera. Auzoan itotzen ari gara.

Ur falta zela eta kezkatzen hasi zirenean auzo

honetan nor den guztiak bere alea jarri zuen: batzuk arraultzak erosi, beste batzuk arraultzak mojenetara eraman, mojek berek euren errezoak eta zelebrazioak egin; mota guztietako sazerdoteek gisa askotako prozesioak eratu zituzten, hainbat herritan santua atera zuten pasiatzera, bazter guztietan errogatibak entzun ziren.

Goikoak entzun zien, gezurra badirudi ere, eta orain, to, ura, baldeka. Auzo txikia izanagatik ez dezatela euren puska falta. Ez al zenuten nahi? Bada, ito zaitezte. Orain eske eta eske ibilitakoek diote haiek ez dutela kulpa. Errua beti aldamenekoarena da, noski. Euria ari du eta ez dago itzulbiderik. Orain aterbea bila eza-zu.

Euria ari du etengabe, baina ez dario ura. Herra dario.



asteko pertsonaiak



Juan Tamariz Magoa

■ Juan Tamariz magoa Iruñean izan zen estreinakoz iragan asteartean eta asteazkenean. Tamarizek Nafarroako hiriburuko Gaiarre antzokian eskainitako magia erakusketa oso arrakastatsua izan zen eta jende anitz bildu zen *Magia potagia* bere emanaldia ikustera. Tamarizek horren aurretik prentsaurrekoa eman zuen. Magoak ez dela munduko onena bazioen ere, «eleganteena» dela erantsi zuen. Era berean, hitzetik hortzera gauzak egitea gustatzen zaiola adierazi zuen eta publikoaren partehartzea ezinbestekotzat jo zuen. Juan Tamariz 1970ean hasi zen lanean eta geroztik leku batetik bestera dabil bere abilitadea erakusten. Magia ezezki, hitzaldiak ere ematen ditu.



Iñaki Cabases Nafarroako Industria sailburua

■ Iñaki Cabases Nafarroako Industria sailburuak herrialdeko enpresak garatzeko 500 milioi aurrakusiak daudela iragarri zuen aste honetan. Dirua enpresa txiki eta ertainentzat izanen da eta industria garapenerako programen bidez jaso ahal izanen da. Aipatu programak duela bi urte hitzartu zituzten Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Industria Enpresa Txiki eta Ertainetako Institutuak. Industria sailburuak erran zuenez, programa hauen bidez Administrazioak euren finantzaketa eta industria jardura hobetzeko tresnak eskaini nahi dizkie enpresa txiki eta ertainei. Enpresa hauek garrantzia dute herrialdean, beraien esku daudenez % 60 lanpostu.

ahaztu gabe!



LEHIAKETA

Zangoza: Apirila eta iraila bitarteko Udalaren kultur egitaraua jasoko duen triptikoaren azala egiteko, diseinu lehiaketa antolatu du Zangozako Udalak. Parte hartu nahi duenak martxoaren 5a baino lehen aurkeztu beharko du bere lana Zangozako Udaleko Kultur Etxean, eguerdiko ordu bata eta erdiak baino lehen. Lanak 21x21 zentimetroko neurria izan beharko du eta paper gainean egin beharko da, bi tinta erabiliz. Lana kartazal batez barruan aurkeztu beharko dute partehartzaileek. Kartazalean lanaren izena jarri beharko dute eta beste kartazal batean, berriz, izen-abizenak, NAN zenbakia, telefono zenbakia eta adina.

Aurkeztutako lan guztien artean garailea aukeratzeko epaimahaia osatuko du Zangozako Udaleko Kultur Batzordeak. Irabazleak 75.000 pezetako saria eskuratuko du. Aurkeztutako lanak Zangozako Udalaren esku geldituko dira lehiaketa amaituta. Hala ere, guztiakin erakusketa egiteko aukera aztertzen ari dira Udaleko arduradunak.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara; bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaintik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritzak, ohiturak.

Izaba

Izabako Udalak ez du hartzari buruzko lan batzordean parte hartu nahi

Hartza desagertua dagoela dio, eta hura berreskuratzeko Gobernuak onartutako plana bideraezina dela

Nafarroako Gobernuak onartutako Hartza arrea Berreskuratzeko Planak eztabaida sortarazi zuen Erronkariko bailaran bertako ordezkarien aurrean aurkeztu bezain laster. Aipatu plana aztertze-ko, hain zuzen, lan batzorde bat sortu da. Erronkariko ibarreko Biltzar Nagusiak abenduaren 16an onartu zuen batzorde horretan parte hartzea. Urzainki eta Izabako Udalak, ordea, aurka agertu dira.

Fernando Hualde / Izaba



Izabako Udalak errefuxatu egin du Hartza Berreskuratzeko Plana.

FERNANDO HUALDE

NAFARROAKO GOBERNUAK proposatuta eta, Urzainki eta Izabako Udalak aurka zeudela Erronkari ibarreko Biltzar Nagusiak aurreko abenduaren 16an onartuta, lan batzorde bat sortu da Hartza arrea Berreskuratzeko Plana aztertze-ko. Hala ere, talde horrek arazo handiak izan ditzake normaltasunez lan egiteko, Izabako Udala ez baitator bat Nafarroako Gobernuaren jokabidearekin. Horren ondorio izan da Izabako agintariak lan batzordean parte hartu nahi ez izatea, eta Izabako udalerriarekin zerikusirik duten gaiez erabakiak hartzearen aurka egotea.

Bitartean, erronkariaren eta Nafarroako Gobernuaren artean osatutako lan batzordea urtarri-laren 22an bildu zen lehenengo aldiz, Ingurugiro Departamentuko ordezkariak eta Erronkariko sei herritako —zazpi dira guztira— agintariak bertan zeudela.

Izabako Udalak aurreko abenduaren 27an erabaki zuen bilera horretan ez egotea eta, aldi berean, jendaurrean salatu zuen Hartza Berreskuratzeko Plana inposatutakoa dela. «Kontuan hartuta ez zutela Izaba gogoan izan Planaren aurkezpena egin aurretik, ondoren eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehen, argitarapena geldiarazteko eskatu zen, zertarako eta lehenengo aztertu eta, geroago, gaiarekin zerikusirik duten guztien artean, denok batera eta kidez kide, Frantziako Pirinioan egindakoaren antzeko proiektu berri bat gauzatzeko; baina ez zuten onartu inposatutako plana, eta handik aste gutxitara argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean», adierazi zuen Izabako Udalak aipatu erabaki hartan. Herri horretako alkate Angel Luis de Miguelek gogora ekarri zituen Del Castillo kontseilariak, aurreko azaroaren 22an Parlamentuan egindako agerraldian, Erronkari aurka agertuta ere



Hartza desagertutzat jo nahi du Izabako Udalak.

FERNANDO HUALDE

Angel Luis de Miguel: «Ezin dugu Nafarroako Gobernuak hartza berreskuratzeko inposatu nahi digun plana onartu, hartza arrea dagoeneko desagertua delako»

Plana onartu egingo zela esanez botatakoak. «Onartzea erabakita badago —dio De Miguelek—, argi gelditu bada gure iritzia edo egin ditzakegun ekarpenek jasotzen duten mesprezua, eta sujerentziak edo oharpenak egiteko posibilitatea baino ez badigute uzten, ez dauka zentzurik lan batzordean parte hartzea, zer eta aurretik erabakitako testu batetaz aritzeko inolako aldaketarik egin ahal izan gabe».

Hartza arrea desagertua dagoela uste du Udalak • Del Castillo jaunak Parlamentuan esan badu ere Erronkari ibarrak Hartza Berreskuratzeko Planaz informazio ugari jaso dituela, Izabako udalbatzak behin eta berriro adierazi du Ingurugiro Departamentuak ez duela batere informaziorik eman: «Ezari behar ziguten proiektuaren berri eman baino ez dute egin, eta Planaz soilik aritu dira; inoiz ere ez digute informaziorik eman horren bideragarritasunaren funts teknikoaz, are gutxiago Izabako gizartean eta ekonomian epe labur eta luzean izango duen eraginaz ere».

Baina Izabako Udalarentzat Planak, ezarritakoa izateaz gain, baditu hainbat akats tekniko, eta, ondorioz, bideraezintzat jotzen du. «Zientzilarik guztiek onartzen dute hartzaren iraupena garantizatzeko bideragarri den gutxieneko ale kopurua

50ekoa dela, ahul eta endogamiko delako. Kontuan hartuta Nafarroan hartzik ez dagoela, eta Planak alerik ez ekartzea aipatzen duela, nolatan izan daiteke Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro kontseilaria guztiz bideraezina den Plan bat aurkezteko bezain axolagabe?».

Hori guztia gutxi balitz bezala, Izabako Udala Nafarroako Espezie Babestuen Katalogora jotzeko asmoa du; izan ere, uste du hartza arreak Nafarroan egun duen egoerari ongien egokitzen zaion definizioa, 2/1993 Legearen arabera, espezie desagertuaren dela, eta ez desagertzeko arriskuan dagoen espeziearena.

Jarrera irmoa agertu badu ere, Izabako Udala prest dago hitz egiteko Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuarekin. «Ingurugiro zerbitzuarekin sortu diren desadostasunak gutxitzeko asmoa dugu —dio Angel Luis de Miguel alkateak—. Gure artean komunikazio erraz eta etengabea izatea gustatuko litzazuke, baina sektore guztiak —basogintza, abeltzaintza, elurra, turismoa, industria, baita Ingurugiroa ere— barne hartuko dituen proiektu global batean lan egin nahi dugu, eta ez etorkizunean egin daitezkeen proiektuak hipotekatuko dituzten proiektu partzialetan; horregatik, ezin dugu onartu hartza berreskuratzeko ezarri diguten plan hau». ✕

Literatur lehiaketetako altxorra

Iruñeko Udalak 1882an hasi zituen euskarazko deialdietan lan bitxiak aurkeztu ziren

Zaraitzuko haur jostaketen inguruan Federico Garraldak idatzirik lan ezezaguna, euskal itzulpengintzan aro berri bat zabaldu zuen 'On Kixotea' Orixeren lana edota Iruñerrian eta Estellerrian 1926an erabiltzen ziren euskarazko hitzen bilduma dira, besteak beste, Iruñeko Udalak 1882an antolatu zuen literatur lehiaketaren artxiboan aurki daitezkeen harribitxi batzuk.

Alberto Barandiaran / Iruñea

ASKI EZEZAGUNA bada ere, Iruñeko Udalak antolatutako literatur lehiaketaren historia 1882an hasi zen, orduko Sanferminetan. Literatura ezezik, zientzia eta artelanak ere baziren deialdiaren barruan, eta musika, pintura, historia, ikerlanak, poesia eta literatura gaiak tartekatuta zeuden, sari ezberdinetan banatuta.


1882koan horietako bakarra izan zen euskaraz: Nafarroako erakundeak goresteko bertsoetarako deialdia. Joaquin Larreta Arzak jaso zuen lehen saria *Irakurgaya: Miluzeko zubia* lanarekin. Akzesita Claudio Otaegi jaunari eman zioten *San Francisco Javier Jaunari Nafarroaren azkenac* lanarengatik.

Hurrengo urtean, 1883an, berriro egin zuen deialdia Iruñeko Udalak. Oraingoan bi izan ziren euskaraz egiteko proposatu ziren gaiak: Nafarroako historiaren pasarte bati buruzkoa bata, eta poesia bukolikoa bestea. Carmelo Etxegaraikoak jaso zuen lehen saria lehenean, *Pedro Bereterreko, guizon illezkorra* lanarengatik, eta Felipe Arrese Beitiak bigarrena, *Baserritar baten kantua* izenekoarengatik. Poesia sailean ere akzesita eman zitzaion *Zoriontasuna* idazkia aurkeztu zuen Claudio Otaegiri.

1884ko deialdian hiru izan ziren euskarazko gaiak: Euskarazko odak —Carmelo Etxegaraikoak irabazi zuen *Euskara ill ezker* lanarengatik, eta Claudio Otaegiri akzesita eman zioten *Euskarari kantachoa* idazkiarengatik—, euskal ohituran oinarritutako kondaira —Etxegaraik berak irabazi zuen, *Bizi bedi Nafarroa* lantxoarekin—, eta koadro dramatikoak, gai librean —Victoriano Iraolaren *Lendabizico sagua* idazkiari akzesita eman zitzaion—.

1885ean gai eta partaide beretsuak aurki ditzakegu. Bertso sailean Felipe Arrese Beitiak irabazi zuen *Anchinaco denboran* idazkiarekin, eta poesian Carmelo Etxegaraikoaren *Euskal Erriyari* nagusitu zen.

1886an deialdia egin zen berriro, eta euskarazko sailean poesia atera zen lehiaketara, baina saria eman zutenik agiririk ez dugu aurkitu Iruñeko Udaleko artxiboan.



Iruñeko Artxiboan dago jaso 1882tik 1926ra bitarteko lehiaketaren informazioa.

JOXE LACALLE

Hortik aurrera eten luzea izan zuten sariok, 1907ra arte, hain zuzen. Sail bakarra proposatu zen orduan euskaraz —Nafarroako Foru Orokorrean azaltzen diren euskal hitzen indizea, bere itzulpenarekin eta analisi etimologikoarekin—, baina ez zen lanik aurkeztu. Hortik beste eten bat izan zen 1926ra arte.

1926an Damaso Intzakoak epaimahian • Damaso Intzakoak aita kaputxinoa azaldu zaigu orduan epaimahaikoen artean. Iduriz indarberriturik zegoen urte hartan lehiaketa, 32tik gora sari proposatu baitziren, horien artean sei euskaraz: atsotitzei buruzkoa, Azkueren hiztegiaren jaso gabe dauden hitzen bilketa, euskarazko ordurako galdutako hitzen bilketa, nafar foruei buruzko eta euskal paisaiei buruzko lan poetikoa, eta euskal jokoei

buruzko beste bat.

Desagertutako hitzei buruzkoa eta paisaiei buruzko poesia ez ziren azkenean saritu, akaso dirurik nahikoa ez zelako izan denendako.

Damaso Intzakoak sarten inguruan bere proposamenak egin zizkienean epaimahaikoei bereziki azpimarratu zuen horietako bat: Azkueren hiztegiak argitaratu ez zituen hitz berrien ingurukoa, hain zuzen ere. Intzakoak «ederra eta bitxia oso» deritzo Pastor Arraiozko kaputxinoak *I.H.S.* izenburupean aurkeztutako lanari, 1.546 hitz dakartzalako, alfabetikoki bilduak eta zein herritan jaso diren zehazki aipatu ondoren. Intzakoak, bere gutunean, 500 pezetako saria ematea proposatzen die epaimahaikoei, lanari zegozkion ehun pezetan orde. Ez zioten aintzat hartu proposamena.

Arlo horretako beste lan bat ere azpimarratzekoa da euskaltzalearen ustez, 490 hitz dakartzana, hain zuzen ere. Artxiboan ez dago jaso lan horren autorearen izena.

Atsotitzei buruzko saria Aingeru Irigaraik jaso zuen, *Euskara garbia ikasteko* lanarengatik. Hau izan zen aurkeztu zen lan bakarra. Foruei buruzko sailean bi lan jaso ziren, bat Larraundik eta bestea Baztandik, baina ez bata ez besteak ez zuten epaimahaikoaren oniritziarik jaso, eta «kaskarrak» zirela dio bere erabakian. Haur jostaketetan aurki daiteke, nolahi ere, lehiaketa hauetako bitxikeria aipagarriena: *Aurendako dostatzia da osasuna bilatzea* izenekoak. Hurrendako sariak ere baziren, erdaraz eta euskaraz, eta azken hauen artean azpimarragarria da Aldaztik etorritako lan franko,

hain segur hango andereñoaren bultzadarengatik.

Lehiaketa honek 1928an izan zuen berriro deialdia, eta gaiak ere aurreko edizikoen beretsuak izan ziren. Historia, nekazaritza, arkeologia, musika, literatura... eta euskarazko hiru sail: euskarazko plegu solteak eta proklamak, inprimatuta edo eskuz eginitakoak, garaiko ortografiarekin kopiatuta; jatorriz euskarazkoak diren hitzak, Nafarroan gaur egun erabiliak eta oraindik Akademiaren hiztegiaren bildu gabeak; eta Cervantes idazlearen *On Kixotearen IX. kapituluaren* bertso literarioa, Euskaltzaindiak araututako ortografiarekin. Azken lan honen saria 300 pezetakoa zen, eta aurreko bina 150 pezetakoa.

Erdarazko sail gehien oraindainsaria 750 pezetakoa zen. Sariak uztailearen 12an banatu ziren Gaiarre antzokian.

Inongo hiztegitan bildu gabeko euskal hitz sorta • Lehen sailean ez zen saririk banatu, eta bigarren sailean Luis Belzunegi Arrutiren *Ocelan* izeneko lanak jaso zuen merezimendua, Damaso Intzakoak, Jesus Aranzadik eta Miguel Intxaurrendok osatzen zuten epaimahaikoen iritziz. Lan bakarra izan zen hau, eta autoreak Nafarroako hego-mendebaldean —Lizarra, Gares, Mendigorria...— eta Iruñerrian erabilita-

Claudio Otaegik eta Carmelo Etxegaraik irabazi zituzten 1882tik 1886ra bitartean Iruñeko udalak antolatu lehiaketako euskarazko sari gehienak

Pastor Arraiozko kaputxinoak Azkueren hiztegiaren jasoak ez ziren 1.546 euskal hitz bildu zituen Nafarroan barna 1926ko lehiaketan plazaratu zuen lanean

Hurrendako sariak ere baziren deialdietan, eta azpimarragarria da Aldaztik etorritako lan franko, hain segur hango andereñoaren bultzadarengatik

1928an 'On Kixote'-ren IX. kapitulua itzultzea zen gaietako bat, eta Orixe beldur zen hiru lan tajuzko aurkeztuko ote ziren. Bost saritu zituzten

1928ko uzta loriatsuak besterik pentsarazteko modua ematen bazuen ere, ez zuen jarraipenik izan lehiaketak, eta 1985era arte itxaron behar izan zen

ko eta jatorriz euskarazkoak ziren hitzak jasotzen zituen bertan, eta Damaso Intzakoak dioenez, «nongo euskal hiztegitan bilduak ez daudenak».

Halaber, Historia sailean toponimiari buruz aurkeztutako *Mal-karra* izeneko lana ere bereziki saritzea proposatzen die kaputxinoak epaimahaikoei, «lan aparta delakoan». Bertan biltzen dira Iruñerriko hainbat toponimo, baina lan hori ez dago egun urte hartako informazioa bilduta duen artxiboaren pleguan. Nafarroako toponimian maisu izan den Jimeno Jurioren ustez, lan hori Ignacio Baleztenak egin eta gero Javier bere semeak *Temas de cultura popular* sailean argitaratu zuen bera da.

Lan hau erabili izan dute frankotan udal artxibarietako Iruñeko toponimiarako, eta Jimeno Jurioren aburuz, kasik samarra da. «Baleztenak argitaratu zuen gero Zaragozan eginiko kongresu batean zerranda osoa, eta gaur egun onargaitza da egin zuen lan hura. Toponimo asko asmatu eta kokatu zituen nahi izan zituen eran, eta Erdi Aroan paratu zituen garai hartan ez zeudenak. Toponimiarekin jolastu egin zuen».

On Kixotearekin Orixe, Lizardi eta Irigarai • Arrakasta handiena izan zuena, nolana ere, *On Kixotea*-ren IX. kapituluaren itzulpena izan zen, 17 lan aurkeztu baitziren. Horien artean, izen ezagun askoak, benetako adituak: Nicolas Ormaetxea Orixe, Jose Maria Agirre Lizardi, Aingeru Irigarai... Bakarrarendako saria izanik ere, aurkeztu ziren lanen mailak hauratuta edo, Damaso Intzakoak bost sari ematea gomendatu zien epaimahaikoei, «bidalitako idazkiek ahalegin handia eskatu dietelako autoreei eta lan hori ez zelako behar bezala eskertua izango sari eta domina bakar batekin, zilarrezkoa izanik ere». Orixeren *Pignus si tuleris, firmini festa videbis* izena zuen lana izan zen, hortaz, 300 pezetako lehen saria jaso zuena, eta Buenaventura Oierregiko apaiza izan zen bigarren sariaren hartzailea, *Bidaso* izenarekin aurkeztu zuenarengatik. Bi itzulpen bidali zituen Altsasuko kaputxinoetan zegoenak, bat itzulpen zuzena eta bestea librea, eta azken hau saritu zuen epaimahaikak.

Hirugarren saria Aingeru Irigarai aurkeztutako *Begira nezak...* lanarendako izan zen, eta laugarrena Lizardiren *Il etzaiten...* izenburua zuenarendakoa. Azkena, bosgarrena, Pasai Antxoko Juan Garbiza Salaberriren *Urretxindor* izeneko itzulpenarendako izan zen. Harrigarria bada ere mota honetako lehiaketa estu batean hainbeste sari eman izana ez bide zen okerra izan Damaso Intzakoaren iritzia

lanen mailari zegokionez, Orixeren itzulpen hau ereduarriztat jo izan baita ondoren, «zentzuzko itzulpenaren aroa» zabaldu zuelakoan, Xabier Mendiguren Bereziartuk argitaratu berri duen *Euskal itzulpenaren historia laburra* liburuan jaso duen bezala.

Hasteko, harrigarria suertatu omen zitzaiezen partaideei itzulpen gintza sari bihurtzea, eta horrek aro berria zekarrela eta pozik azaldu zen Orixe, berak sariaren berri izan eta berehala *Euzkadi* aldizkarian plazaratu zuen *Certamen y un cursillo. Enseñanzas* artikuluan. Idazlea beldur zen, Paulo Iztuetaren *Orixe eta bere garaia V* liburuan jaso duen bezala, Kixotearen esaldien eraikuntza bihurriagatik hiru itzulpen taxuzko ere ez zirela agertuko, baina ustea ustel gertatu zen. Gainera, horrelako lehiaketa motak bide ematen zuen itzultzaileek besteen lanak azter zitzaten, eta Orixe eta Lizardik elkari igorri zizkieten idazkiak. Azken hau mirestuta gelditu zen irabazlearen lanarekin. «Meritu handiko lana da» azaldu zuen *Euzkadi* aldizkarian, «gehiago pentsatuta hizkeraren jeinua harrapatzeko ezen ereduari hitzez hitz jarraitzeko». Lizardiren ustez, itzulpena edozein hizkuntzak nahiko zukeenaren mailakoa zen, eta horrek poza areagotu egiten du idazlearengan, «mende honen azken laurdenean euskal literaturak izan duen aurrerapen zoragarriaren ideia laburtuta eman dezakeelako».

Uzta loriatsu eta eder honek besterik pentsarazteko bide ematen bazuen ere, ez zuen jarraipenik izan lehiaketak. Ez gogo falta zegoelako, Intzako anaia gogotsuak proposatu zituelako hurrengo urteetarako gaiak —Tobiasen liburu sakratuaren itzulpena, Jorge Manrique bere aitaren heriotza zela eta argitaratutako poesiaren itzulpena, sagar eta sagarrondoei buruzko ikerketa...—, baina beste usteak —ez dago horri buruzko erreferentziarik lehiaketei buruzko dokumentazioan— nagusitu ziren. Lehiaketaren tradizio honi jarraipena eman nahi izan zion gero Olabe Fundazioak, 1929ko ekainean, eta euskarazko sailetan —prosa eta poesia— 2.000 eta 2.500 pezetako sariak eman ziren urte hartan. Diputazioaren dirulaguntza ere jaso zuen lehiaketak, baina gerrak nahasi egin zuen dena, eta hortik aurrera Fundazioa apaizkumeei eta neskato behartsuei dirulaguntzak ematen aritu zen, desegin zen arte.

1985an, sortu berria zen Euskara Zerbitzuaren bultzadarekin, euskarazko literatur lehiaketarako deialdi berria egin zuen Iruñeko Udalak egile berrientzako, eta 1991ko etenarekin, gaur egun arte jarraitu du.



Zaraitzuerazko testu ezezaguna

DUDARIK gabe, 1926ko deialdian haur jostaketei buruzko euskarazko lanen sailean saritu zuten *Aurrendako dostatzia da osasuna* bilatzia idazkia da lehiaketa hauen harribitxirik azpimarragarriena. Otsagabiako haurrendako hamabi jostaketa eta hamabost pipitaki —asmakizunak— daude bilduak lan harrigarri honetan, euren izenekin eta jostatzeko manerarekin. Lana sinatuta ez badago ere, sarien ordainketa agirietan azaltzen da Federico Garralda otsagiarraren izena. Zaraitzueraz hamaika lan idatzi eta argitaratu zuen albaitari eta idazlea hau 1880an jaio zen, aita Ziriako Garralda euskaltzale eta idazlea zuela.

Euskal Esmalea aldizkariak jaso zituen gehienbat Garralda-

ren lanak, eta gaiak herriko kontuak, albaitaritza eta narrazio laburrak zituela. Txema Larreak eta Periko Diez de Ultzurrunek 1985ean karrikaratu zuten *Nafarroako euskal idazleak (I)* lanean, alabaina, ez dago aipatu lan hori idazleari buruzko zerrendan, ezta Jon Bilbaok eginiko bibliografia lan mardulean ere. Gure iduriz, argitaragabea eta ezezaguna da lantxo hau, Pablo Fermin Irigarai Larreko idazleak ere esaten duelako, Garralda 1929an hil zenean bere gainean idatzi zuen lantxoan, 1925ean *Euskal Esmalea*-n argitaratutako *Abelgorriak* lana izan zela Garraldaren azkena. Larrekok kezka ere azaltzen zuen idazkian zaraitzueraren etorkizunaz. «Nolana ere dela Garralda'tar Federiko jaun zena ginuen orai artio Sarasaitzu'ko euskal-idazle ikasiena eta langilena. Ura kendurik, ez dakigu aterako den

beste norbait arek bezain ongi egin dezakenik. (...) Eta Sarasaitzun'n, ez ote da orainik norbait agertuko guri erakusteko bedere eta ango euskararen berri emateko?». Haur jostaketei buruz orain argitaratua izan daiteke haren azken lana, eta desagerturik den euskalkiaren lekukotasuna emateaz gain, gerta daiteke aberasgarri etnografiaren ikuspuntutik, zehaztasun osoz ematen baitu haur-jolasen berri.

Mirrix-marrax izeneko da Garraldak dakarren lehen jostaketa. Ezagun askoa da oraindik inguruan, eta bereziki interesgarria da autoreak egiten duen azalpena. «Mirrix marraxarekin asi biardut, lemeziko aurren dostara baita. Txikin drenian aurrak troxuan daudenian orainik, lepotik tiliton errmanez murrxtatzeko kirkilara, eta urranto ikusirik bere ezpañetan lemeziko ba-

rrak, aita eta amak anai eta arreba balimadie, astendra aurren dostatzira mirrix marraxiala. Kuen altzuetan aurrak ttontto eseririk, urranduz betartiak, aurren eskuak arrepatrik bi ukaraietarik xabal xabala igaretzentre goitirik apal bi betarte aldetarik, erranez aldi oro itz bat. Kala: Mirrix marrax/ non izan/ amur-zianian/ zer eman/ txitxi eta papa/ non ene partia// Graitzuepean/ graitzua non/ suak erre/ sua non/ urak hil/ ura non// Oluak edan/ olua non/ arroltze eruten/ arroltzia non/ apezak xan/ apeza non// Sarria ku... kulla kullan meza ematen// Uyuka erratendra azken itzak. Aurrek, uguetra egitendie barra karkila andiak erranez, berriz... Kau aitrak aita eta amak gogotik egilendu berriz mirrix marrax, aurren dostatziatatik, et aurren kilikor goxua betartian arrtziatitak. X

Xanti Begiristain

Firin-Faran-en akatsak

■ Jakina da mundu honetan denok ditugula geure akatsak. Inor ez da perfektua; ni ere ez, noski, baina iritziak emateko dugun askatasun eta eskubidea aprobetxatuz, hemen jarri behar ditut aburu batzuk, *Firin-Faran* ETB1eko programari buruz.

Hasteko esango dut, nire iritziak, mota horretako programak oso interesgarriak direla ikus-entzuleentzat, baldin eta gutxieneko baldintza batzuk gordetzen baditu; esan nahi dut, alegia, ezinbesteko duintasuna baldin badute horrelako saioak oso gustoko eta probetxugarriak suerta daitezkeela jendearentzat. Gaur egun, hainbat eta hainbat gauza gertatzen direnean eta hainbeste eta hainbeste ideia dabilzanean, uste dut inoiz baino beharrezkoagoak direla eztabaida saioak, norberak bere iritzi berekiak atera ditzan denek entzun ondoren. Baina, goraxeago esan dudana bezalaxe, programa horiek gutxieneko batzuk izan beharko lituzkete arrakastatsu samarrak izateko, eta nik zalantza egiten dut,

Firin-Faran saioak gordetzen ote dituen gutxieneko horiek behar besteko duintasunez. Ikus dezagun, honako hauek dituzue aipatutako eztabaida saioari ikusten dizkiodan hutsik nabarmenenak: lehenik eta behin, tele-saio horretako partaide guztiek defenditzen dute Euskal Herria Iparraldeak eta Hegoaldeak ostazen dutela, baina paradajokoki, programan esku hartzen duten partaide guztiak (zazpi bataz beste) EAEkoak dira, salbuespenak salbuespen, nahiz eta Nafarroa eta Iparraldea baturik handiagoak izan EAE baino, lurraldeari dagokionez. Hau da, Nafarroa eta Iparraldea gehienetan erreprezentaziorik gabe egoten dira, sarritan aipatu eta gorensten badituzte ere.

Beste akats nabari bat, emakumeen kopurua izaten da, nahiz eta azken asteetan berdindu duten pixka bat, baina orain arte, oro har emakume bakar batek eta sei *oilar* harroskok osatu ohi zuten *oilategia*. Nire iritzi apalean, kopuru hori oraindik oso urruti gelditzen da berdintasunetik. Hirugarren hanka-sartze dezente bat izan liteke, astero-astero ia pertsona berberak errepikatzea. Eta argi geldi dadila honekin ez ditudala pertsona horiek kritikatu nahi, uste dut arrunt ongi egiten dutela joaten, gonbitea egiten baldin badiete. Baina garbi dago pantailan ikasturte osoan aurpegi eta ahots berberak somatzeak nekea eta asperra sortarazten dituela, eta hori ez da batere positiboa inorentzat. Askok ere aberasgarriagoa izanen litzateke denentzat, astero-astero pertso-

nak aldatzea, eta aldi berean, adituak eramatea gai bakoitzerako; antzeko zerbait egiten dute ETB2an, nahiz eta askotan ez dudana ikusten. Agian esango lidakete horrela askoz ere garestiago aterako litzatekeela, baina beno, orduan nik erantzungo nieke «jar dezatela aurrekontu handiagoa!».

Gainera, ETB2an ahal bada, zergatik ezingo da egin lehenengo katean? Argi dago ETB2an askoz eztabaida saio gehiago eta hobeagoak daudela ETB1ean baino; zergatik ote? Azken finean, ETBko lehendabiziko katean, azken hilabeteotan, *Firin-Faran* da dagoen eztabaida saio bakarra; horri gutxiegi deritot gauza onerako. Gero, badakit bai, hor daudela *Bertatik Bertara* programan egiten diren berriak, solasaldiak, berbaldiak, eta abar, eta *Hitzaro*-n burutzen diren elkarrizketak, baina esan bezala, ez bai programa bakarra azken hileotan, *Firin-Faran* dugu; hagitx gutxi! Tele-



bista gutxitan gertatzen da antzeko zerbait (Pamplona TV, eta abar). Euskadi Irratian esaterako, *Goizean behin* izeneko programan, astero errepikatzen dira partaide berak, baina gogoan hartu beharra dago asteen bost saio egiten dituztela, eta egun bakoitzean hainbat pertsonarekin; horrela eramangarriagoa suertatzen da.

Bukatzeko, esango nuke (eta barka nazala) iruzkintzen ari garen saioan ateratzen den aurkezle eta moderatzailea ez dudala oso trebe eta eskuduna ikusten. Denok ezagutu dugu iaioagorik ETBn bertan; orduan, galdera hau da: Zergatik jarraitzen ote du Estepan Aldamizek? A, potxoloak! Nik ez diot erantzunik emango galdera horri, baina uste dut askok susmatzen dugula zein den.

Laburbilduz, nire aburuan, *Firin-Faran*-eko arduradunek seriooki pentsatu beharko lukete ez ote diren moldaketatxo batzuk behar programan, teleikusleak ez nazkatzeko eta saioa askoz ere onuragarriagoa izan dadin. ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Aingurak egiteko aholkuak

■ XVIII. mendeko hasmentak erret sendi berria Españari erakarri zionean anitz aldakuntza egokitu zitzaizten Euskal Herriari. Frantziako Luis XIV. eguzki erregeak lagunduriko Anjouko dukeak Madrilen eskuratu zuen erregetza Felipe V. izenarekin eta Borboi honen abondo asmoren artean itsas flota eta armada berri eta poteretsua ezartzea zegoen. Urde goseak ezkurra amets. Hortarako beharrezko zitekeen oro Ensenadako markisak antolatutako: bela oihalak ekoizteko Galizara jo, sokaginak Valencian eta Granadan bilatu, artilleria olak Sevilla eta Barcelonan ezarri, eta azkenik aingurak eta burdingintza Gipuzkoa eta Bizkaia eskaini. Horretarako Gipuzkoan zenbait saio egin ziren aingura lantegi berria ezartzeko, Arrazubian lehendabizi. Erreteriarako Renteriola-Olaldean geroxeago, eta Hernanin zegoeneko.

Gipuzkoako itsas armadako arduradun nagusia zen Juan Antonio Enriquez, 1787. urtean Donostian argitara eman zuen *Memoria sobre las fábricas de anclas, de palanquetas, de baterías de fierro, la fundería y otros establecimientos de la provincia de Guipúzcoa* liburuan bertan zekarren *Papel de advertencias* azpi kapitulu batetan bildurik zeuden aingurak hobekiro landu ahal izateko zenbait aholkuren euskal itzulpena Gipuzkoako ainguragintzan zeuden maisuri nahiz langileri orori helarazteko ardurak biziki kezkatu zuen. Bertan ainguren ekoizpenarako gogoan izan behar zituzten jakintza ezin garrantzitsuagoak jasotzen ziren, erregeari hobe oraino zerbizatzeko. Naski Enriquezen liburuan agertzen den aipatu *Papel de advertencias* horren aldaera erdalezkoa dela soilik, eta euskal iraulketak kezka bide zerraien Enriquezengan, are gehiago kontutan badugu Bernabe Antonio Egaña gipuzkoarrak urte berean Tolosan agertu zuen *Continuación de la memoria que sobre la fábrica de anclas, palanquetas, de baterías de fierro, la fundería y otros establecimientos de la provincia de Guipúzcoa* dio a luz D.J.A. Enriquez del consejo de SM, su secretario, ministro general de la marina y juez de arribadas en los puertos de dicha provincia Enriquezen lanaren jarraipenean horren arrastorik ere hatzematzen ezin dugula.

Prebencioac eta adbertenciac paratcen diranac maisu trabajatu beardituztenentzat ainguraz erregeren armadaracotzat idazki laburra osatzen duten zazpi puntuak erdarazko testutik itzulpen zehatz-mehatzak ditugu. Lehendabizikoa ainguragilei bere lana arretaz egiteko luzatu eskaera soila litzateke izan ere erregearen menpekoen bizitzaren segurtasuna halei baitzihoakien: «Eduqui bear dute beti chit presente, ezen, ainguren ondo trabajazeco moduan eta aien seguridadean consistizen duela ez bacariq maisuaren interesac eta credituac nagusi obligacion sarturic daudenac probincia chit noble Guipuzcoa oneta-coarenac zeña dan bacarra española gucicoetan duena fabrica genero au baita ere erregeren serbicioa eta principalen asco gende ofretzen diranac bere personen pelguro andia zeña da serbicioic aundiena eta probechoseona erregeren magestatearentzat baita ere estadu guzientzat eta orgatiq deitzen zaio arrazot andiarequin aingura esperanzacoa onclñac eramaten duen andienari zeñaren gañean confitauric gueldizen dan oncio gende guzta». Bigarrenak Somorrostroko burdina erabiltzearen aldeko jarrera azaltzen du: «Ezaguera onequin procuratuco dute maisu guztic ez largazea eguin gabetanic dan gauzari hituena importatzen duena ainguraren sendotasunera eta seguridadea begiratu gabetanic guchi edo asco gastazeari contentatzen daloric errastazunen batequin largazea obeto eguin ditekueala edota reparo precisoric eguin gabe burnitaren calidadean zeñac izan bear duen ontasun guzicoa eta eguiña eta trabajatu Zomorrostroco edo Vizcaico mearequin eta ez Guipuzcoan eta Naparroan ateraz denarequin, baita ere ipiñi bearduela cuidado andia maisuac epleattu beardituen piezac neurri onecoac eta correspondizen zalozcanac beren luzean eta lortasunean ainguraren tamaño edo pisu trabajatu bearduenari». Gai nontzekoak prozesuari buruzko kontseiluak emateko dira: «Ypiñico dute cuidado chit andia dan galdaric chiquena ere atarazea temple edo sasoi onean galdit gabetani lenbtzico izerdi berez dacarren ura eta biurtu gabe aldaba berriz suteguian sarzera, baita ere ondo eguita ebaqui edo erdiratu berariac eta precisioa bezala eguiten zaiona escuari galdazeco besoarequin aplicazen zaioa laz. (...) Cuidatuco dute ere aingura acabatua gueldidedin chit ondo malluquin apain doa ala aldebatitq nola bestetic baita ere gueldidedin bere parte guztietan ongui trabajatu eta neurri aguinurican daudenetan arreglatua eta ipiñia baita ere chit aldean edo diferencia guchitrequin pisu escatu zanean modu onetan izan didin errazaña eta ligeroa bere mobimento guztietan baita ere seguridade guzicoa onzi zeñarentzat izan bearco duen aplicatua». ■



Nafarroako banakako txapelketako bigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 27an jokatu.

J. M. Perez Reclusa, 2.035 ELOkoa — Angel Vilchez, 1.850 ELOkoa.

1.d4,Zf6; 2.c4,e6; 3.Zc3,d5; 4.Zf3,b6; 5.d5.
Beltzen aurreko jokaldiari erantzuna, alfilarren 'b7-ko' irteera oztopatzeko.
5.....Zd5; 5.e4,Zc3; 7.c3,Ab7; 8.Ab5 xa,c6; 9.Ad3,Ae7; 10.Af4,Zd7; 11.0-0,Gc8; 12.De2,Zf6; 13.h3,0-0.

Garapen logikoa dirudi. Baina pieza txuriak alde horri begira daude, erasoaren zain.

14.e5,Zd5; 15.De4,g6; 16.Ah6,Ge8; 17.Gc1,Af8; 18.Ag5,Ae7; 19.Dh4,Ag5; 20.Zg5,h5; 21.c4,Zb4; 22.Df4,Gf8.

Ikus koadroa. Jokalari erasokorrek berehala ikusten du puskatzeko aukera. Ez da atzera egin behar.

23.Ze4,Zd3.

'Eg7' zen jokatu beharrekoa.

24.Dh6,f6; 25.Dg6 xa,Eh8; 26.Zf6.

Gaztelua eman beharra dago orain; zaldia gero. Beltzek partida utzi zuten eraso gogor hori zela-eta.



Eduñe Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO (NUP) Euskara taldeak berriki kaleratu du *Inkarie* aldizkariaren bigarren zenbakia. Joan den urteko maiatzean auzeratu zuen bere burua jendarearen unibertsitateko euskaldun ororen aldizkaria izan nahi duen honek.

Estreinako zenbaki hark argia ikusi zuenetik bigarren hau sortu bitartean Euskara taldeko kideek egindako lanak, hala ere, izan du emaitzarik eta bigarrena lehenengoa baino hobea dela uste dute aldizkari arduradunek.

Taldearen lana bada ere, Ritxard Tanko eta Gorka Obejero dira *Inkarie*-ko buru eta beraien gana jo dugu NUPeko euskarazko aldizkari honen barrukoeri berri jakiteko asmoz.

Inkarie kalean denetik aldizkaria eskuan hartu duen edonork egin izan duen galdera bada ere, NUPeko Euskara taldeak bere argitalpenari emandako ize naz itaundu diegu guk ere lehen-dabizi. «Leitzan gertaera nabarmenak izendatzeko erabiltzen den hitza da, bai txarrak bai onak», erantzun digu Gorkak, irribarretsu, galdera berari hamaika aldiz entzun dionaren planta eginez.

Aldizkariaren edukari dago-kionez, bestalde, ez dute mugarik jartzen *Inkarie*-ko arduradunek: «Kolaborazio asko jasotzen ditugu eta oso gai ezberdinak jorrazten dituzte. Horien artean onenak aukeratzen ditugu». Aldizkari-ko bigarren zenbaki honek, adibidez, Euskal Kulturaren Batzarrea hartu du gaitzat *Euskaltzale mundua* bere atalean, eta izeneko orrian, berriz, Euskalerrri Irratiaren berri ematen du. Olerki, ipuin eta iritzirako txokorik ere izan du *Inkarie*-ren bigarrenak.

Bada, hala ere, Euskara taldeko kideentzat artikuluak aukeratzeko orduan lehenetarik duen ezaugarria, hala nola herri bakoitzeko euskara erabiltzea. «Euskalkiei garrantzi berezia ematen diegu. Euskara batuan idatzita dagoen aldizkari asko dago finean. Halaber, NUPen herri askotako jende asko dagoela uste dugu eta ikasle horiei euren euskara propioa erabiltzeko aukera eskaini nahi diegu», azaldu du Ritxardek.

Euskara taldearen aldizkariaren bigarren zenbakiak, hain zuzen, Arbizu, Iruñea, Ituren, Lakuntza, Etxarri, Leitza eta Muskizko euskaraz idatzitako artikuluak jaso ditu. Unibertsitateko euskaldunek euskal gaiak jorrazteko euskaraz idazten duten aldizkaria dugu, beraz, *Inkarie*.

Bigarrena lehenengoa baino hobea • Joan den urteko maiatzean jaio zen *Inkarie*, NUPeko Euskara taldearen aldizkaria. Gorkak aipatu duenez, «Unibertsitateko taldeek bazuten bakoitzak bere argitalpena, baina euskal mundutik at zeuden guztiak. Hutsune hori betetzeko asmoz sortu genuen *Inkarie*».

Errektoretzatik jasotako diruari esker Euskara Zerbitzuko bulegoan egiten dute Euskara taldeko kideek euren aldizkaria. Bigarren zenbakia argitaratu ondoren, urtean bi egiteko asmoa plazaratu digute. Hirugarren zenbakia, beraz, berriro ere



F1:Ritxard, Haritza eta Gorka Euskara taldeko kideak.

JOXE LACALLE

‘Inkarie’, bigarren zenbakia kalean

NUPeko Euskara taldearen aldizkaria iazko maiatzean argitaratu zen estreinakoz

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskara taldeak *Inkarie* bere aldizkariaren bigarren zenbakia kaleratu berri du. Joan den urteko maiatzean sortua, unibertsitateko gainontzeko aldizkariak atzuten zuten euskal mundua jorraztu nahi du *Inkarie*-k. Aldizkari-ko atalen artean euskalkiei eskainitakoa da garrantzitsuena. Honi buruz mintzatu gara Gorka Obejero eta Ritxard Tanko Euskara taldeko kide eta aldizkari arduradunekin.

maiatz aldean kaleratzeko asmoa dute *Inkarie* aldizkari arduradunek. Lehenengo eta bigarren zenbakien emaitzak ikusita, gainera, ideia berriak ere badituzte esku artean, aldizkaria hobetzeko asmoz.

«Lehenengo eta bigarren zenbakien artean badago ezberdintasunik. Bigarren honetan diseinua gehiago zaindu dugu eta hirugarrenari begira, berriz, marrazki eta komiki gehiago sartzeko asmoa dugu. Euskalkiei eskainitako orriak garrantzitsuak izanen dira hirugarrenean ere, baina aldizkari irakurteraza eta arina egin nahi dugu», azaldu dute Ritxard eta Gorka Euskara taldeko kideek.

Inkarie aldizkariak, edonola, oihartzuna izan du Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta lehen zenbakitik banatutako mila aleak berehala agortu ziren.

Aldizkaria dohainik banatzen dute Euskara taldeko kideek Nafarroako Unibertsitate Publikoko zokoetan eta baita Iruñeko hainbat liburutegietan ere. Bigarren zenbakiak orrialde gehiago duenez —24—, 800 ale kaleratu dituzte.

«Ez dute ezer egin»

MILA EUSKALDUN baino gehiago daude Nafarroako Unibertsitate Publikoan, baina hala eta guztiz ere euskarak NUPen duen egoera ez da batere ona, Ritxard eta Gorka *Inkarie* aldizkari arduradunen aburuz. «Ez dago ezer egin», azpimarratu du zalantza izpirik gabe Gorkak, «Irakasletza kenduta, euskaraz ikasgai solteak ikasteko aukera baino ez dago hainbat karreratan, besterik ez».

Inkarie-ren bigarren zenbakiak lehen orrialdean salatzen duenez, unibertsitateko normalizazio plangintzaren arabera, hain zuzen, Nekazaritza Ingenieritza Teknikoa euska-

raz jarri behar zuten ikasturte honetan, baita ekonomia ikasketetan eta soziologian ere ikasgai bana. «Baina ez dute ezer egin. Dagoen bakarra Euskara Zerbitzua da. Oso ongi dabil, itzulpengintzan batez ere, baina itxurak egiteko baino ez dute jarri».

Errektore aldaketak, bestalde, ez du aldaketarik ekarri Ritxard eta Gorkak nabarmendu dutenez. «Errektore berria, Antonio Perez Prados alegia, lehenengo baino okerragoa izanen zela bagenekien euskarari dagokionez». Eta horren adibidetzat, hain zuzen, normalizazio plangintzarekin gertatutakoa aipatu digute *Inkarie* aldizkari arduradunek: «Joan den maiatzean onartu eta martxoan jarri zuten

martxan. Atzeratua gelditu dela erran eta beste bat onartu behar dela azaldu dute orain. Ur-tarrilean, beraz, berriro ere beste plangintza egiten hasi dira, hutsetik. Urte oso bat galdu da».

Normalizazio plangintzaren osaketa, hain zuzen, NUPeko Euskara taldeak lan egiten duen alorretako bat da. Bestea, berriz, kultura. Euskara taldea orain lau urte sortu zen Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Gorkak azaldu digunez, «talde ezberdinak osatzen hasi ziren eta hemen ere Euskara taldea beste hainbat lekutan bezala beharrezkoa zela uste izan genuen». Batzordeak eratu eta lanean hasi ziren. Gaur egun, dagoeneko, 30 bat kidek osatzen dute Nafarroako

Unibertsitate Publikoko Euskara taldea. Urte hauetan guztietan ekintza ugari antolatu dituzte eta euskal unibertsitate publikoaren aldarrikapena beti izan da eurentzat garrantzitsuenetako bat. Euskara taldeak egiten duen lanaren beste ardatzetako bat, halaber, urtero egiten duten Euskal Jaia da, nahiz eta lehen-dabizikoz Euskara taldea sortu aurretik ospatu zuten. Aurten ere, azkenekotan bezala, Euskal Jaia izanen da Nafarroako Unibertsitate Publikoko kanpusean, martxoan aldera hain zuzen ere. «Egun zehatza oraindik finkatzeko badago ere, 22 edo 29an izanen da, ziurrenik», aipatu dute Ritxard eta Gorka Euskara taldeko kideek. X

◆ Luis Agirre ◆ Orkestra zuzendaria

«Musikariak motibatu nahi ditut»

Urtarrilaren 1az geroztik Pablo Sarasate Orkestrako zuzendari berria da Luis Agirre madrildarra. Zuzendaritzaren munduan, hala ere, aspaldi eman zuen lehen urratsa. Bere lan berriari ilusioz ekin dion arren, Pablo Sarasate Orkestraren egoera ekonomikoak bere asmoak mugatuko dituela jakin badauki. Funtsean bere musikariak motibatu nahi ditu eta horretarako denboraldi interesgarriak osatu nahi ditu. Hori lortzeko lanean hasia da dagoeneko.

Edurne Elizondo / Iruñea

BERRIOZARKO Mendialdea ikastetxean aurkitu dugu Luis Agirre. Bertako haurrei kontzertua eskaini ondoren, dagoeneko alde egin dute musikari guztiek eta eszenatokian isilik eta bakarrrik gelditu dira musika tresnak.

■ Nola ailegatu zara Pablo Sarasate Orkestrako zuzendari izatera?

Lehenik eta behin, erran beharra daukat lehendik ere ezagutzen nuela orkestra hau, 1985. urtetik izan baitut hemengo ki-deekin harremana. Orduan, Santa Cecilia Orkestra zen artean eta behin baino gehiagotan izan nintzen zuzendari gonbidatua. Orkestra berriarekin ere lan egin dut orain zuzendari izan baino lehen. Harreman hori abiapuntutzat hartuz, Pablo Sarasate Orkestrako zuzendaritza eskaini zidaten, baietz erran eta hemenxe nago.

■ Ibilbide luzea egin duzu, hala ere, Pablo Sarasate Orkestrara ailegatu baino lehen.

Ikusketak Madrilen egin nituen eta ondoren Londresera joan nintzen, nekiena hobetzera. Zuzendaritzaren munduan, egia



Luis Agirre da Pablo Sarasate Orkestrako zuzendari berria.

JOXE LACALLE

erran, zuzendari gonbidatu izanik hasi nintzen, besteak beste, Espainiako Orkestra Nazionalan, Sevillakoan, Bilbokoan edo Euskadikoan. Atzerrian ere orkestra askotan ibili naiz. 80ko hamarkadan itzuli nintzen Madrileren eta bertan, profesionala ez zen orkestra batean hasi nintzen lanean. Ez genuen ezer kobratzen baina gustukoa genuen egiten genuena eta pozik ibili ginen. Ondoren, Espainiako Orkestra Nazionalako zuzendariaren laguntzaila izan nintzen bi urtez. Birak egiteko aukera eman zidan lan horrek eta Jose Luis Lopez Cobos bezalako zuzendariarekin asko ikasi nuen. Orduetik, buru-belarri aritu naiz zuzendaritzaren munduan.

■ Datozen hilabeteetako begira, zeintzuk dira dituzun helburuak?

Nire asmoa Pablo Sarasate Orkestrak egun duen maila hobetzea da. Denboraldi interesgarriak egin nahi ditut, finean, orkestrako musikariak zuzendari gonbidatu garrantzitsu eta onekin lan egiteko aukera izan dezaten. Niretzat hori funtsezkoa da, hau da, nire ustez zuzendari gonbidatuaren zeregina ez da kontzertua eskaini eta alde egitea, ez horixe, orkestrari zer eskaini ere izan behar du zuzendari horrek, nahiz eta gonbidatua izan. Itzal handiko profesionalak ekarri nahi ditut, baina asmo hori gauzatzea zaila izanen da Pablo Sarasate Orkestrak duen aurrekontuarekin. Hala ere, ahal dudana neurrian helburu hori betezen ahaleginduko naiz.

■ Egoera ekonomikoak bala du eraginik musikarien eguneroko lanean?

Bai noski. Arazo ekonomikoak, gaur egun, egia erran, orkestra

guztiek dauzkate. Pablo Sarasate dagokionez, jakin badakit musikariak jasotzen duten soldata ez dela oso handia eta horrek, noski, eraginik badu. Kontuan hartu behar da, gainera, musikariarena lanbide zaila eta oso konplexua dela. Beraz, soldata ona jasotzen duen musikariak gabe ezin da orkestra onik osatu, ezinezkoa da.

■ Orkestrari berari dagokionez, aldaketarik egiteko asmoa al duzu?

Hitz gutxitan erranda, orkestra osoa hobetu nahi dut, atal bakoitza eta guztiak. Batasun eta zehaztasun handiagora lortu nahi dut, orkestrak erantzuteko gaitasuna izan dezan. Finean, orkestra malguta da lortu nahi dudana. Baina ezaugarri horietaz gain, funtsean orkestra motibatu nahi dut eta horretarako beharrezkoa da denboraldi interesgarriak prestatzea. Alor artistikoa ezezik, orkestra ona lortzeko funtsezkoa da lan baldintzak egokiak izatea. Pablo Sarasate Or-

s o s l a i a

Luis Agirre Madrilen sortu zen orain dela 45 urte, eta han bizi da emaztearekin eta bi seme-alabekin batera. Jatorria, hala ere, Euskal Herrian du bere abizenak argi azaltzen duen bezalaxe, Bilboko baitzuen aita.

Musika ikasketak Madrilen egin zituen Luis Agirrek eta zuzendaritzaren munduan ere han eman zituen lehen urratsak. Orduz geroztik, hala ere, hamaika herritan izan da. Estatu orkestra guztietan izan da zuzendari gonbidatua eta Estatu Batuetan eta Europan ere ezagutzen dute bere lana. Espainiako Orkestra Nazionala eta Espainiako Irrati Telebistako Orkestrako zuzendari izan da, besteak beste.

Pablo Sarasate Orkestra 1985. urteaz geroztik ezagutzen du madrildarrak, zuzendari gonbidatua izan baitzen gurean ere. Urtarrilaren lehenengoaz geroztik, ordea, bere gain hartu du orkestra zuzentzeko ardura. Sinatu duen kontratuaren arabera, 1997. urteko uztaiera bitartean beteko du lan hori.

kestraren baldintzak, ordea, ez dira onenak. Egungo egoitza entseiatzeko ez da batere aproposa, akustika txarra delako, batetik, eta bestetik, leku txikia delako ere. Baina hori da daukaguna, oraingoz behintzat.

■ Iruñean auditorioa behar dela uste duzu, beraz?

Guztiz beharrezkoa dela uste dut, zalantzarik gabe. Musikariak, finean, euren lana duintasunez eta baldintza egokienetan egin ahal izateko lekua behar dute. Nik, egia erran, ez dut ulertzen Iruñean auditoriorik ez izatea. Gaur egun, hain zuzen, Gaierre antzokiaz gain ez dago halako musika ekitaldiak egiteko beste lekurik. Iruñean Pablo Sarasate bezalako orkestra izanda, auditorioa eraikitzea, nahiz eta hasieran gastua izan, inbertsio polita da aurrera begira.

«Iruñean Pablo Sarasate bezalako orkestra izanda, auditorioa egitea beharrezkoa dela uste dut»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI ERDA



©Telepatia. Kasu bitxi bat. 1944eko Urtarrilaren 20